



# 16 URTETIK BEHERAKO COVID-19AREN AURKAKO TXERTOIA

## BAIMEN-ORRIA (EDO UKO EGITEKOA)

### *RNA mezulariaren txertoei buruzko informazioa*

- Eman zaizun txertoak murriztu egiten du SARS-CoV-2 birusaren ondorioz gaixotzeko arriskua (Covid-19).
- Txerto horrek gaixotzeko eta gaixotasuna modu larrian garatzeko arriskua gutxitzen du, baina ez du infekzioaren transmisioa erabat saihesten; horregatik, txertoa hartu duten pertsonen kutsadura saihesteko prebentzio-neurriak hartzen jarraitu behar dute (eskuak garbitu, maskara erabili eta pertsonen arteko distantzia gorde).
- Txertoak ezin dizu gaixotasuna eragin: birusaren puska bat besterik ez du, eta horrek ez du infektatzeko ahalmenik.
- Bi dosi behar dira txertaketa egokia egiteko. Babesik hoberena bigarren dosia hartu eta 7-14 egunera lortzen da.
- Txerto guztiek bezala, honek ere nahi gabeko ondorioak izan ditzake. Gehienak arinak eta iraupen laburrekoak dira. Ohikoagoak dira bigarren dosia eman ondoren. Behar izanez gero, analgesiko bat har dezakezu.
- Nahi gabeko ondorio ohikoenak:
  - Mina, handitua edo gorritasuna injekzioa jarri dizuten lekuan
  - Nekea.
  - Buruko mina.
  - Muskuluetako mina
  - Artikulazioetako mina
  - Hotzikarak.
  - Sukarra.

Jarri harremanetan zure osasun etxeko medikuarekin edo erizainarekin, 2-3 egun pasatu ondoren sintoma horietakoren bat handitzen bada edo zerrendan agertzen denaz bestelako sintomaren bat baduzu.

- Oso gutxitan ikusi da bihotzeko muskuluaren (miokarditisa) edo haren inguruko ehunaren (perikarditisa) inflamaziorik. Batez ere, txertoaren bigarren dosia jaso ondoko 14 egunetan izan dira, gizon gazteren baten kasuan, baina , oro har, bilakaera ona izan dute.

Arnasa hartzeko zailtasunik baduzu, bihotz-erritmo irregularreko taupadarik edo bularreko minik, osasun etxe batera joan behar duzu balorazioa jasotzeko.

- Bigarren mailako edozein ondorio izanez gero, jakinarazpen-sistema nazionalaren bidez ere eman dezakezu haren berri: <http://www.notificaRAM.es>

Nahi gabeko ondorioen berri emanez, sendagai honen ezaugarrien ezagutza hobetzen lagun dezakezu.



### HAURRAREN DATU PERTSONALAK:

1 abizena: .....  
2 abizena:.....  
Izena:.....  
Jaioteguna:...../...../..... CIPNA: .....  
Helbidea..... Herria: .....  
Harremanetarako telefonoa-.....  
Arreta ematen dizun Osasun etxe o zentroa:.....

### AMAREN/AITAREN/TUTOREAREN DATUAK:

1 abizena: .....  
2 abizena:.....  
Izena:.....  
NANA:..... Harremanetarako telefonoa:.....

Baimena ematen duzu?

BAI  EZ

Data eta sinadura:

2021eko..... aren..... (e) (a) n

## SINADURARIK GABE EZ DA TXERTORIK JARRIKO

### Datu pertsonalen babesa

Datu pertsonalen tratamendua honako hauen arabera egingo da: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio askeari dagokienez; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa; 41/2002 Legea, azaroaren 14koa, Pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak, eta 17/2010 Foru Legea, azaroaren 8koa, pertsonen osasun-arloan dituzten eskubide eta betebeharrari buruzkoa.

**Tratamenduaren arduraduna:** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua

**Tratamenduaren helburua:** historia klinikoak – Osasun-laguntza

**Hartzaileak:** Nafarroako Foru Komunitateko osasun-zentroetan artatutako pazienteak

**Eskubideak:** datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, eramateko eta tratamendua mugatzeko eskubideak baliatu ahal izango ditu.

[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Portal+de+la+Salud/Ciudadania/Participacion/Proteccion+de+datos/](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Portal+de+la+Salud/Ciudadania/Participacion/Proteccion+de+datos/)